

## III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

### EUSKO JAURLARITZA

#### ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

##### Laneko, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Arabako Lurralde Ordezkaritza

#### **“Asociación de Pequeños Comerciantes e Industriales de Llodio “APILL” elkartearen estatutuak aldatzea**

Ebazpena, 2016ko urriaren 4koa, Arabako Lurralde ordezkarirena, “Asociación de Pequeños Comerciantes e Industriales de Llodio “APILL” elkartearen estatutuak aldatzeko dokumentazioa eta estatutuok gordailutzea agindu eta horren berri emateko dena.

Sindikatu eta Enpresa Erakundearen Estatutuak Gordailutzeko Bulego Publiko honetan espediente hasi da “Asociación de Pequeños Comerciantes e Industriales de Llodio “APILL” elkartearen estatutuak aldatzeko dokumentazioa gordailutzea dela-eta, zeina lehendakariak aurkeztu baitu. Espediente hori ikusirik, ebazpena eman da, honako aurrekari hauek oinarri hartuta:

#### Aurrekariak

Lehenengoa.– 2016ko irailaren 19an, aipatu elkartearen estatutu-aldaketari buruzko dokumentazioa eta estatutuak gordailutzea eskatzeko dokumentazioa aurkeztu da.

Bigarrena.– Aurkeztutako dokumentazioa bat dator sindikatuen eta enpresa-erakundearen estatutuak gordailutzeari buruzko maiatzaren 29ko 416/2015 Errege Dekretuan ezarritakoarekin, eta dokumentazio horretan honako dokumentu hauek daude jasota: gordailutze-eskabidea egiteko instantzia, 2016ko ekainaren 23ko batzarraren akta –non aldaketaren erabakia jasota baitago– eta aldatutako estatutuak.

Hirugarrena.– Arabakoa da elkartearen jarduketa-eremua, eta haren eremu funtzionala estatutuetako 4. artikuluan jasota dago, merkataritza, industria, ostalaritza eta zerbitzuak barruan.

Egitate horiei zuzenbideko honako oinarri hauek aplikatu behar zaizkie:

#### Zuzenbideko oinarriak

Lehenengoa.– Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 191/2013 Dekretuko 19.1 i) artikulutik datorkio organo honi Sindikatuen eta enpresa-elkarteen estatutuen gordailutzea formalizatzeko eskumena.

Bigarrena.– Administrazio-prozedura honetan aplikagarri den funtsezko araudia apirilaren 1eko 19/1977 Legean eta Sindikatuen eta enpresa-erakundearen estatutuak gordailutzeari buruzko maiatzaren 29ko 416/2015 Errege Dekretuan jasota dago.

Hirugarrena.– Gordailutzeko dokumentazioa aztertu ondoren, ikusi da zuzenbidearen arabera dela, eta, beraz, bidezkoa da aipatu enpresa - elkartearen estatutuak aldatzeko aktari buruzko dokumentazioa eta aldatutako estatutuak onartzea gordailua egiteko, eta argitara ematea ekintza hori.

Aipaturiko oinarriak eta oro har aplikatzekoak diren xedapenak aztertu ondoren, honako hau

#### Ebazten dut

Lehenengoa.– “Asociación de Pequeños Comerciantes e Industriales de Llodio “APILL” elkartearen estatutuak aldatzeko akta eta aldatutako estatutuak gordailutzea agintzea.

Bigarrena.– Gordailutze hori ALHAOn argitaratzeko agintzea, sindikatuen eta enpresa-erakundeen estatutuak gordailutzeari buruzko maiatzaren 29ko 416/2015 Errege Dekretuaren 13. artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

Hirugarrena.– Interesdunek aztertu ahalko dute gordailututako dokumentua, eta horren kopia eskatu, baita inpugnatu ere Arabako Lan epaitegien aurrean, urriaren 10eko 36/2011 Legearen 2. L artikuluan ezarritakoaren arabera (2011ko urriaren 11ko BOE).

Vitoria-Gasteiz, 2016ko urriaren 4a

*Arabako lurralde ordezkaria*

**ÁLVARO IRADIER ROSA**